

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Navarrabiomedek bihotz-gutxiegitasuna saihesteko Europako ikerketa-proiektu batean parte hartuko du

*Patologia horren jatorrietako bat den bihotzeko fibrosia garatzen duten faktoreak aztertuko ditu.*

Martes, 24 de diciembre de 2013

Navarrabiomed - Miguel Servet Fundazioko ikertzaile talde batek, datozen lau urteetan, bihotz-gutxiegitasuna prebenitu eta tratatzeko Europako ikerketa-proiektu batean parte hartuko du. Patologia horrek, Espainian, hilkortasun-indize handienetakoa du.

"Fibrotargets: targeting cardiac fibrosis for heart failure treatment" izena duen proiektuaren helburua bihotzeko fibrosia (bihotzean kolageno kopurua handia metatzea) garatzen duten mekanismo eta faktoreak aztertzea da, horrek bihotz gutxiegitasuna eragiten baitu. Hala, prozesu patologikoa saihestea ahalbidetzen duen zelulen erantzuna eragiteko gai diren eta farmakoekiko sentikorrek diren zelula-substantzia berriak (xede terapeutikoak) aurkitu eta identifikatzea da asmoa.

Navarrabiomedeko kardiologia traslazonalaren taldeak egingo du lana, Natalia López-Andrés doktorea buru, zentroko proteomika-unitatearen laguntzarekin.

"Fibrotargets" proiektua Europako 6 herrialdeetako 11 kidek osatzen dute. Estatutik, Nafarroan erreferentzia diren biomedikuntzako bi zentroek (Navarrabiomed eta Ikerketa Mediko Aplikatuaren Zentroa --CIMA--) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Innoprot zentroak parte hartuko dute. Hauek dira gaineko kideak: INSERM, Inserm Transfert, Greenpharma SAS eta FIRALIS SAS (Frantzia); University College Dublin (Irlanda); Maastrichteko Unibertsitatea (Herbehereak); Hannoverreko Medikuntza Eskola (Alemania); eta Vienako Unibertsitate Medikoa (Austria).

### Bihotz-gutxiegitasuna

Bihotz-gutxiegitasuna osasun-arazo handia da Espainian: 65 urtetik gorakoak ospitaleratzeko arrazoi nagusia da, ospitaleetako diru-sarrera guztien % 3 baliatzen da patologia horretarako eta osasun-laguntzaren kostuaren % 2,5 da. 2010ean, bihotz-gutxiegitasuna izan zen gizonen heriotza guztien % 3ren arrazoia eta emakumeen heriotzen % 10ena.

Nafarroan, 2011n, 5.158 pertsona hil ziren bihotz-gutxiegitasuna dela-eta, 2611 emakume eta 2.547 gizon.